Hernaniko Udala

HERRIKO KIROL KLUBAK EUSKALDUNTZEKO PLANAK EGITEKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAREN KONTRATUA PROZEDURA IREKIAN ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- Kontratuaren xedea

- Herriko kirol klubetan euskara-planak garatzeko baliabideak eskaintzea Udalak, klubak arnasgune funtzional bihurtzeko; hau da, euskaraz naturaltasunez eta eroso bizitzeko guneak.

2.- Zerbitzuaren ezaugarriak

- Herriko honako klub hauei eskainiko zaie zerbitzua: Hernani Eskubaloi Taldea, Hernaniko Judo Taldea, Hernaniko Arraun Elkartea, HKE Saskibaloia, Hernani Club Rugby Elkartea, CDH Hernani eta Hernani Igeriketa.
- Zerbitzuak 4 urte urte iraungo du gehienez ere. 4 urteko plangintza egingo da, baina urtez urte egingo den plangintza ere egingo da; baita urtez urteko aurrekontua ere, aurrekontua osoarekin batera.
- Koordinazioa:
  - Udalak jarraipen zuzena egingo dio egitasmoari. Hori gerta dadin,
    - alde batetik, alde bien arteko jarraipen iraunkorrerako kanalak zehatuko dira;
    - eta, bestetik, enpresaren eta udalaren arteko koordinazio-bilerak aurreikusiko dira:
  - Enpresa arduratuko da klubekin koordinatzeaz; baita gorabeherak kudeatzeaz ere.
  - Hala ere, enpresaren, klubaren eta udalaren arteko hiruko bilerak ere aurreikusiko dira: urtez urteko plangintzaldiari hasiera emateko eta amaiera emateko balorazioan, gutxienez.
- Udalak, jarraipena egiteaz gainera, aukera izango du uneoro egitsmoaren egoeraren berri informazioa eskatzeko, baita aholkuak emateko ere.
- Egitasmoak klubak bere osotasunean euskalduntzea jasoko du; gutxienez, honako alderdi hauek jaso beharko ditu:
  - Kluben egungo euskararen egoera aztertzea eta ezagutzea. Azterketa hau genero-ikuspegiz egingo da, hots, bilduko diren informazio edo datuak sexu-generoaren arabera berezita bidaliko dira eta modu berezituan aztertuko dira emakumen eta gizonen hizkuntza-praktikak. Beste era batera esanda, hizkuntza-praktiketan generoak eraginik duen aztertuko da eta ondoren proposatuko diren esku-hartzeetan aintzat hartuko da.

    Azterketa horretan genero-ikuspegia txertatzeko tokiko egoera genero-betaurrekoekin irakurtzeaz gain, aintzat hartuko dira generoak hizkuntza-praktikatan nola eragiten duen ezagutzeko egindako azterlan esanguratsuak.
  - Hizkuntza irizpideak ezartzea: euskarari lotutako irizpideak finkatzea eta komunikatzea.
  - Egoera hobetzeko plangintza zehaztea. Plangintzan aintzat hartuko dira hasierako azterketan identifikatutako emakume eta gizonen hizkuntza-praktikak.
  - Klubari lotutako interesatuak prestatzea eta baliabideak eskaintzea: informatzea, sentsibilizatzea / ahalduntzea eta estrategiak eskaintzea zuzendaritzari, entrenatzaileei (16 urtez azpikoekin ari direnei eta zaharragoekin ari direnei, bakoitzari esleitutako

rolaren arabera), jolakalariei (16 urtez azpikoekin ari direnei eta zaharragoekin ari direnei, bakoitzari esleitutako rolaren arabera), gurasoei eta klubarekin lotura duen beste edonori (langileak...). Lanketa horiek egiterakoan aintzat hartuko da genero-ikuspegia, besteak beste, emakumeak eta gizonak inplikatzea bilatuko da eta ez dira genero-rol eta -esteriotipoak erreproduzituko.

    - Euskararen erabilera 16 urtez azpiko taldeetan edo kirolariengan areagotzeko estrategiak eta metodologia.

- Egitasmoak urtez urteko plangintzaldiak eta kronogramak jasoko ditu: helburuak, ebaluazioa... Plangintzaldi bakoitza amaitutakoan, aurrekoan egindakoa ebaluatu ondoren, hurrengo plangintzaldirako plana berrikusi eta onartu egingo da, errealitatera egokitzeko. Helburuek eta ebaluazio-irizpideek genero-ikuspegia izango dute. Aintzat hartuko dute generoak hizkuntza-praktiketan duen eragina eta euskararen biziberritzean inplikazio txikiagoa duen genero-praktikarik edo gunerik identifikatuko balitz, aintzat hartuko da plangintzan. Horrekin batera, plangintzaren segimendu eta ebaluaziorako sortuko den ebaluazio- edo adierazle-sistemak aukera emango du abiapuntuko hizkuntza-praktiketan identifikatutako genero-aldeen bilakaera ezagutzeko.
- Egitasmoak eta plangintzaldiak klub bakoitzaren errealitatera egokituko dira, behin kluben egungo egoera ezagututakoan.
- Ebaluazioa: Egindako jarduera bakoitzak izango du ebaluatzeko irizpidea. Horretaz gainera, plangintzaldi bakoitza amaitutakoan ebaluazio orokorra egingo da, eta udalarekin partekatu. Egitasmoa amaitutakoan ebaluazio orokorra egingo da, honako hauek jasoko dituena: hasierako helburuak, erdietsitakoak, erdietsi gabeak eta aurrera begirako proposamena. Plangintzaren segimendu eta ebaluaziorako sortuko den ebaluazo- edo adierazle-sistemak aukera emango du abiapuntuko hizkuntza-praktiketan identifikatutako genero-aldeen bilakaera ezagutzeko.

3.- Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena 4 urtekoa izango da (2026-2030).

4.- Prezioa

38.000€ + % 7.980 BEZ (45.980€)

Ordaintzeko era: urtez urteko plangintzaldiaren aurrekontuaren arabera orainduko da, %75 plangintzaldia onartutakoan; %25 uteko plangintzaldia zuritu ondoren.

5.- Aurkeztu beharreko proiektua

Zerbitzua emateko egitasmoa edo proiektua aurkeztu beharko da eta bertan honako alderdi hauek jaso beharko dira, besteak beste:

- Egitasmoaren:
    - Helburu orokorrak
    - Helburu espezifikoak
    - Helburuak lortzeko proposatutako ekintzak
    - Ebaluazio sistema(k)
- Urtez urteko plangintza zehatza

- Koordinazioa:
  - hala kanal iraunkorrak.
  - nola, udalarekin, klubekin eta enpresarekin koordinazioa nola gauzatuko den.

6.- Giza baliabideak

Zerbitzua zuzenean emango duten pertsonek plegu administratiboetako 20. klausulan jasotzen den hizkuntza eskakizunaz gain, ondorengo kaudimen teknikoa egiaztatu beharko dute:

- Gradua gizarte zientzetako arloren batean.
- Gutxienez bi urteko esperientzia hizkunzaren kudeaketan, euskara planak diseinatzen edota hizkuntzaren normaliazioarekin lotura duten egitasmoekin.

Hernanin, 2026ko otsailaren 27an